

SIDEROMETALURGIA ETA EKIPAMENDU-ONDASUNAK SIDEROMETALURGIA Y BIENES DE EQUIPO

Gipuzkoa

Arrasate Mondragón

Erdigunea Casco urbano

UNIÓN CERRAJERA



Enpresa honen sorrera burdinolek mendeetan egindako lanaren bilakaeraren ondorio da, eta eskualdeko garapen industrialaren ulertzeko abiapuntu ere bai. Zaldibarreko Olazarra burdinolatik eta Zigarrolatik abiatuta, XIX. mendean erdialdean sarraila-tailer txiki bat sortu zuten. Enpresa historiko hau Cerrajera Guipuzcoana eta Vergarajauregi, Resusta y Cía enpresak batuta sortu zen 1906an. Oso zatikaturik jaio zen, eta, ondorioz, produkzioa bi lekutan zentralizatu behar izan zuten: Zaldibarren (Arrasate) eta Bergaran. XX. mendean izandako eraldaketek eta krisialdiek, batez ere mende bukaerakoek, instalazioak erabat murriztea eragin dute. Hala ere, garai batean lantegi-talde homoginoa osatu zuen, eta arkitektura-eredu interesgarriak zituen. Nabe gordina zuen eraikinak nagusi; eskeleto soil horren barruan makinak ipin zitezkeen eta ekoizpen-prozesua aise kontrola zitekeen. Lantegi-taldearen ostean urbanizazio bat eraiki zuten, eta Luis Astiazaran arkitektoak estetika arrazionalistaz 1939an eraikitako sarrerako eraikina baino ez zen geratu. Era berean, aprendizaren eskolak eta egun hotel bilakatutako bulegoek ere hortxe jarraitzen dute. Instalazio hauetatik hurbil oraindik familia bakarrerako etxebizitza multzo bat dago, 20ko hamarkadan langileentzat egindakoa, garai hartako aginduei jarraiki. Zigarrolako industria-instalazioak eraitsita daude, nahiz eta oraindik ere San Isidro ermita ikus daitekeen. Garai bateko industria-pabilioi bat baliatuta egin zuten, 40ko hamarkadan.

La génesis de esta empresa es fruto de la lógica evolución del secular trabajo de las ferrerías, y es el punto de partida para entender el desarrollo industrial de la zona. A partir de las ferrerías de Olazarra, en Zaldibar, y la ubicada en Zigarrola, se montó a mediados del siglo XIX un pequeño taller de cerrajería. La histórica firma surgirá en 1906 por la unión de La Cerrajera Guipuzcoana y Vergarajauregi, Resusta y Cía. Había nacido muy atomizada, por lo que hubo que centralizar la producción en dos focos: el de Zaldibar, en Arrasate, y el de Bergara. Las transformaciones y crisis sobrevenidas a lo largo del siglo XX, con un ritmo más acusado en sus décadas finales, han hecho que hoy las instalaciones se hayan reducido a la mínima expresión. Sin embargo, en su día llegó a conformar un conjunto fabril homogéneo, con una interesante muestra de arquitecturas. Dominaba la nave descarnada, simples esqueletos metálicos que permitían albergar máquinas y controlar fácilmente el proceso productivo. El conjunto fabril ha dejado paso a una nueva urbanización, en la que está presente el edificio de la entrada, construido por el arquitecto Luis Astiazaran en 1939, dentro de la estética racionalista; se conservan también la escuela de aprendices, y las oficinas, transformadas en hotel. Cerca de estas instalaciones todavía se puede observar un conjunto de casas unifamiliares, construidas en los años 20 según los dictados de la época para los obreros. Las instalaciones industriales de Zigarrola han sido derruidas, aunque todavía se puede observar la ermita de San Isidro. Su construcción data de la década de los años 40, y se utilizó para ello un pabellón industrial antiguo.